

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: EUSKALTEGIETAN EUSKARA IKASTEN ARI DIREN HERRITARREI DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK 2023-2024 IKASTURTERAKO

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalen kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

2023-2024 ikasturtean euskara ikasten diharduten herritarrei dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea da oinarri hauen xedea. HABEk homologatutako euskaltegiek eta zentroek emandako euskalduntzeko ikastaroak lagundu ahal izango dira, eta horretarako HABEk ikasturtero ezartzen dituen irizpideak jarraituko dira.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

Dirulaguntza hauek eskatzeko ondorengo baldintzak bete behar dira:

- 16 urtetik gora izatea dirulaguntzako xede den ikastaroa amaitzen duten datarako.
- Beasainen erroldatuta egotea dirulaguntzako xede den ikastaroa egiten duten bitartean.
- Eskabidea (l. Eranskina) behar bezala beteta eta nahitaezko dokumentazioa dagozkien epeen barruan aurkeztea.
- Ikastaroa amaitzerako matrikula ordainduta izatea. Ordainketaren gaineko informazioa dagokion euskaltegiak egiaztatuko du ikastaro amaierako ebaluazio txostenean.
- Euskarazko ikastaroan gutxienez %85eko asistentzia egiaztatzea. Langabetuentzako dirulaguntza eskatzaileek %90eko asistentzia egiaztatu beharko dute. Horretarako, ikastaroaren hasiera- eta amaiera-data hartuko dira kontuan.

Dirulaguntza hauek ezin izango dituzte jaso:

- Azaroaren 17an onarturiko dirulaguntzen 38/2003 Lege orokorreko 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) xedaturiko baldintzetako batean dauden pertsona edo erakundeak.
- Norbanakoek ezin izango dute dirulaguntzarik jaso baldin eta Beasaingo Udalarekin dituzten zorrengatik behartze bidez ordainarazteko prozeduretan hasita badaude, ezta ere udalarekiko zerga obligazioak ordaintzeke izanez gero, harik eta zor horiek, benetan, ordaindu eta kitatzen ez dituzten arte; salbuespen bakarra izango dela zorrak geroratuta edo epeka ordaintzeko izatea edo halakoen exekuzioa bertan behera utzita egotea.
- Zigor eta administrazioaren arloan dirulaguntza publikoak jasotzeko debekurik ez izatea, ezta laguntzak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik ere, sexua dela-eta eragindako bereizkeriengatikoak barne direlarik, hain zuzen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatutakoarekin bat etorritik.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Hiru dirulaguntza mota egongo dira, eta bata bestea baztertzen ditu:

1. Dirulaguntza orokorrak:

Dirulaguntzaren zenbatekoa honakoa izango da:

-A1, A2, B1 eta B2 mailetako ikastaroetan, ikasleak ordaindutako matrikularen %75.

C1 eta C2 ikastaroetan, ikasleak ordaindutako matrikularen %50.

Dirulaguntzaren portzentajea kalkulatzeko hasiera maila hartuko da kontuan, eta ez lortutako maila.

2. Espezifikoak: baldintza ekonomikoen arabera .

Familia unitateko urteko diru sarrera garbiak Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) bider 1,5 baino txikiagoak diren kasuetan, dirulaguntzaren zenbatekoa HABEk homologatutako ikastaroaren matrikularen %90ekoa izango da.

Egoera ekonomikoen arabera dirulaguntza eskatzen bada, eskaeraren aurreko ekitaldian familia-unitateak jasotako urteko diru-sarrera garbiak kontuan hartuk odira.

Laguntza horien ondorioetarako, honako hauek hartuko dira diru-sarreratzat: lan etekinak, pentsioak, prestazioak eta laguntzak.

3. Langabetuentzako dirulaguntzak. Ikastaroak irauten duen bitartean langabezia dauden ikasleek ordaindutako matrikularen %100 jasoko dute.

Barnetegian ez da laguntzarik emango egoitza gastuetarako.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO n argitaratu eta hurrengo egunetik hasita eskabideak aurkeztu ahal izango dira.

Eskatzaileak ikastaroa amaitu ondoren egin beharko du dirulaguntza eskabidea.

Epea: Eskabideak aurkeztu ahal izango dira oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta horiek aurkezteko epea 2024ko urriaren 31n amaituko da.

Modua: Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, bertan agertzen diren agiri guztiekin batera. Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez ahal izanez gero: <https://www.beasain.eus/bulego-birtuala> edo Udalaren erregistroan, I. eranskineko ereduaren arabera.